



EBAZPENA, 2024ko maiatzaren 14koa, Hezkuntzako Sailburuordearena, zeinaren bidez Hezkuntza Sailaren mendeko Bigarren Hezkuntzako ikastetxe publikoei dei egiten baitzaie ikastetxe publikoen barne-antolamendua berrizatzeko proiektuan parte hartzeko (HEDATZE).

Bizitza egokitu zaigun gizarte aldakor honetan gure ikasleak ahalik eta prestatuen egotea da Hezkuntza Sailaren helburu behinena. Ipar-orratz hau jomugan, gure ikastetxeetan ikaskuntza-irakaskuntza praktikak aberastuko dituzten proiektu berritzaileak eta eraginkorrek abian jartzea ezinbestekoa da.

XXI. mendeko hirugarren hamarkada honen hasierak euskal hezkuntza sistemari jartzen dizkion erronkak aukerak bihurtuko baditugu, ideia berritzaileak behar ditugu, ikastetxeetan ohiko parametroetatik harago doan eta etengabe eguneratzeko gaitasuna duen hezkuntza-eskaintza erakargarri bezain eraginkor bat planifikatuz.

Antolaketa eta kudeaketa eredu berriak baliatuz, ikastetxeek irakastorduek eta irakastorduzkoak ez diren une hezitzaileak uztartzeko aukera zabaldu behar die ikasleei, guztiek hezkuntza-arrakastaren bidea urra dezaten.

Haur Hezkuntzaren curriculuma zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duen Maiatzaren 30eko 77/2023 DEKRETUAN jasotzen den bezala, ikastetxeak hezkuntza eraldatzeko ardatza dira. Horretarako, hezkuntza-komunitate osoaren ikaskuntzan eta etengabeko hobekuntzan oinarritutako berrikuntza sustatu behar dute.

Zutarrari konpetentzialak dituen hezkuntza eredu anitza, pertsonalizatua, orekatua eta inklusiboa lortze aldera, ikastetxeetako hainbat barne-inertzi birpentsatu behar dira, bereziki, ikasgelaren jardueran, lan-metodologian eta irakastorduetatik harago doan hezkuntza-eskaintzan, hori guztia, klustroen engaiamendurekin eta zuzendaritza talde egonkorren gidaritzapean.

Azken urteotan egin den ibilbideari jarraiki Hezkuntza Sailak bultzatu nahi duen hezkuntza-eredu pedagogikoaren oinarri nagusienetako bat ikastetxeen autonomia da, hezkuntza komunitate bakoitzak dituen premiei erantzun egokitu bat emateko ezinbesteko alderdia baita. Funtsezkoa da, orobat, ikastetxeen berrikuntzaren esparruan lan egitea, sistemak bikaintasunaren bidea jorra dezan.

Testuinguru honetan, Hezkuntza Sailburuordearen 2022ko apirilaren 26ko EBAZPENA argitaratu zen, zeinaren bidez Bigarren Hezkuntzako ikastetxe publikoei dei egiten zitzairen ikastetxe publikoen barne-antolamendua berrizatzeko proiektuan parte hartzeko (HEDATZE) 2022-2023 eta 2023-2024 ikasturteetarako.

Azken bi ikasturte hauetan egindako balorazio positiboaren ondoren, beharrezkotzat jotzen dugu ikastetxeei hezkuntza-komunitate osoarenak izango diren eta hezkuntza-eskaintza indartu eta handituko duten proposamen berrituak bultzatzen jarraitzeko aukera zabaltzea.



Honen ondorioz, 2022ko apirilaren 26ko Ebazpenean ezarritako bi ikasturteen epea amaitzear dagoela, eta, besteak beste, ikastetxeen hezkuntza-eskaintza zabaltzeko, ikastetxeek eskaintzen duten ordutegia handitzeko eta ikasleen parte-hartzea ahalik eta hedatuena izatea lortzeko Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza ematen duten ikastetxe publikoei dei egiten zaie ikastetxeen barne-antolamendua berritzeko proiektuan (HEDATZE) parte har dezaten; eta, ebazpen honen bidez, honako hau

EBAZTEN DUT:

### 1. artikulua.- Deialdiaren xedea.

1.- Ebazpen honen xedea da Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza ematen duten ikastetxe publikoei deialdia egitea ikastetxeen barne-antolamendua berritzatzeko HEDATZE proiektuan parte har dezaten 2024-2025 eta 2025-2026 ikasturteetan.

### 2. artikulua.- Deialdiaren helburuak.

Deialdi honen xede behinena da irakaskuntzaren kalitatea hobetzea eta ikasle guztien eskola-arrakasta sustatzea, ikastetxeetako hezkuntza-jarduera eta eskola-denborak berrantolatuz.

Honako hauek dira deialdi honekin lortu nahi diren helburu nagusiak:

- Ikastetxeen autonomia ardatz, hezkuntzaren kalitatea areagotzea.
- Eskola-denboren kudeaketa-eredu berriak erabili eta ebaluatzea.
- Ikastetxeen ekitatea hobetzen laguntzea, eta horretarako, jardueren eskaintza bat egitea. Hauen artean, eskola indartze neurriez gain, indartze neurri kultural, sozial eta emozionalak aurreikusiko dira. Eskaintza horrek ez die kostu gehigarriak eragin behar familiei eta ez du ikastetxearen egungo zerbitzu-eskaintza desagerrarazi behar. Eskaintza horrek ekarpen bat egin behar du ikasle guztiek hezkuntza-arrakastaren bidea urra dezaten.
- Ikasleek konpetentziak eskura ditzaten bultzatzea, batez ere, irakurtzeko gaitasunean.
- Eskola emaitzen eta bizikidetzaren positiboaren hobekuntza sustatzea.
- Euskararen erabilera bultzatzea.
- Ikasleen autonomia lantzea.



### 3. artikulua.- Deialdiaren ezaugarriak.

1.- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikastetxe publikoek parte hartu ahalko dute HEDATZE proiektuan.

2.- HEDATZE proiektuaren iraupena bi ikasturtekoa izango da eta, ikasturte bakoitzaren amaieran, ikastetxe parte-hartzaile bakoitzaren proiektuaren helburuen betetze-maila balioetsiko duen ebaluazio-prozesua egingo da.

### 4. artikulua- Proiektua aurkezteko ezinbesteko betekizunak.

1.- Ikastetxeak 2024-2025 ikasturterako zuzendaritza egonkorra izatea, hau da:

- a. Otsailaren 3ko 22/2009 DEKRETUA, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren mendeko Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetako zuzendaria aukeratzeko, eta pertsona bakarreko beste gobernu-organismoak izendatu eta kargutik kentzeko prozedurari buruzkoa, eta otsailaren 28ko 29/2023 DEKRETUA, hezkuntzaren arloan eskumena duen sailaren titulartasuneko unibertsitatez kanpoko ikastetxe publikoetan zuzendaritza-funtzioa eskuratzeari, prestakuntza jasotzeari, hura ebaluatzeari eta aitortzeari, eta hura osatzen duten karguak uzteari buruzkoaren arabera hautatuak izan diren zuzendaritza taldeak.

2.- Hedatze proiektua lehen aldiz aukeratzeko kasuan, Irakasleen Klaustroak, eskola-kontseiluak, ikasleek eta gurasoek onartu behar dute proiektua, argi gera dadin Ikastetxe Proiektua dela eta hezkuntza komunitate osoaren inplikazioa duela. Horrenbestez, sektore horietako bakoitzean onartu beharko da honako irizpideak kontuan hartuz:

- a. Klaustroak emandako botoen 2/3ko gehiengo kualifikatuarekin onartu beharko du proiektua, eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako etapetan eta, hala badagokio, Batxilergoan irakasten duten irakasleei dagokien eroldaren % 100eko partaidetzarekin (*ikus II. eranskina: Klaustroaren bozketa-akta erdua eta jarraibideak*).
- b. Eskola-kontseilua: Proiektua ikastetxeko eskola-kontseiluaren gehiengo osoz onartu beharko da (*ikus III. eranskina: Eskola-kontseiluaren bozketa-akta erdua eta jarraibideak*).
- c. Familiak: proiektua, ikastetxeko DBHko ikasleen gurasoekin kontsultatu beharko da, eta sektore honetan onartu beharko da, emandako botoen 2/3ko gehiengo kualifikatuaz eta eroldaren % 50eko gutxieneko partaidetzaz. (*ikus IV. eranskina: Familiei egindako kontsultaren boto-zenbaketaren aktaren erdua eta jarraibideak*).
- d. Ikasleak: proiektua, DBHko 3. eta 4. mailako ikasleekin kontsultatu beharko da, eta sektore honetan onartu beharko da, emandako botoen 2/3ko gehiengo kualifikatuaz eta eroldaren % 50eko gutxieneko partaidetzaz. (*ikus V. eranskina: Ikasleentzako kontsultaren boto-zenbaketaren aktaren erdua eta jarraibideak*).



3.- Hedatze proiektuaren aurreko deialdian parte hartu zuten ikastetxeen kasuan, Irakasleen Klaustroak eta eskola-kontseiluak onartu behar dute proiektua:

- a. Klaustroak emandako botoen 2/3ko gehiengo kualifikatuarekin onartu beharko du proiektua, eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako etapetan eta, hala badagokio, Batxilergoan irakasten duten irakasleei dagokien eroldaren % 100eko partaidetzarekin (*ikus II. eranskina: Klaustroaren bozketa-akta eredia eta jarraibideak*).
- b. Eskola-kontseilua: Proiektua ikastetxeko eskola-kontseiluaren gehiengo osoz onartu beharko da (*ikus III. eranskina: Eskola-kontseiluaren bozketa-akta eredia eta jarraibideak*).
- c. Era berean, Hezkuntza sailburuordearen 2022ko apirilaren 26ko Ebazpenaren 13. artikuluan jasotako azken memoria egin beharko dute. Ebazpen horren bidez, Hezkuntza Sailaren mendeko Bigarren Hezkuntzako ikastetxe publikoei dei egiten zitzaizkien ikastetxe publikoen barne-antolamendua berriztatzeke proiektuan (HEDATZE) parte har dezaten, eta 2024ko maiatzaren 22 baino lehen Hezkuntza Ikuskaritzaren esku jarriko da, Hezigunearen bitartez.

4.- Departamentu guztiek eta Bigarren Hezkuntzan aritzen diren irakasleen %100ak parte hartu behar du proiektuan. Parte-hartze hori ikasleekin hartu-eman zuzenean gauzatuko da, ohiko eskola-jardunalditik kanpo ikasleei eskaintzen zaien ordutegian. Ildo horretan, nahitaezkoa izango da aurreko ikasturteetan gainditu gabeko ikasgaiak dituzten ikasleek parte hartzea, bai eta ikasturtean zehar ebaluazioetan ikasgairen edo eremuren baten gaitasun-ebaluazioa gainditu ez dutenek ere.

5. Ikastetxeak konpromisoa hartzen du 2024-2025 ikasturterako prestakuntza-planean sartzeko bere irakasle guztiek Hezkuntza Sailak irakurtzeko gaitasuna garatzeari buruz antolatutako prestakuntzan parte hartzeko konpromisoa, ikastetxeko irakurketa-estrategia planifikatze eta inplementatze aldera. Prestakuntza horrek 5 orduko iraupena izango du. Honako helburu hauek izango ditu:

- Hezkuntza Sailaren Irakurketa Estrategia berriaren gako nagusiak ezagutzea.
- Bigarren Hezkuntzako jakintzagai guztietan irakurketa berariaz lantzearen garrantzia barneratzea, eta horretarako estrategiak eskuratzea.
- Ikasleengan irakurtzeko ohitura eta irakurzaletasuna sustatzeko estrategiak eta tresnak eskaintzea.
- Hedatze proiektuaren baitan ikasleek irakurketa konpetentzia garatzeko bideak aztertzea.

6.- Ikastetxeak orain arte jangela-zerbitzua eman baldin badu, ez da inoiz ere hura kenduko proiektuan parte hartzeagatik. Eta garraio zerbitzuari dagokionez, aurkezten diren proposamenetan argi azalduko da proiektua bateragarri edo konpatiblea dela zerbitzu honekin.

7.- Ez da onartuko ezinbesteko baldintzak betetzen ez dituen proiekturik.

## 5. artikulua- Proiektua lantzea eta aurkeztea.

1.- Ikastetxearen zuzendaritzak eskatu eta landu behar du proiektua.

2.- Dagokion Hezkuntzako lurralde-ordezkaritari zuzendu behar zaio eskaera.



3. Eskerak elektronikoki bidaliko dira, dagozkien eranskinekin batera, ikastetxe publikoentzako Atariaren bidez: "Herri-ikastetxeak/Deialdiak" (<https://educacion.hezkuntza.net/group/deialdiak/>). Atari horretan, deialdi honen fitxa argitaratuko da, bai eta deialdiarekin lotutako berritasunak ere.

4. Eskabideak aurkezteko epea hilabete batekoa izango da, ebazpen hau argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita.

5. Eskerarekin batera, agiri hauek aurkeztuko dira:

- a. Hedatze proiektuaren eskaria (*I. eranskina: online inprimakia eta; (I)bis eranskina: ordutegi proposamena*).
- b. Klaustroaren bozketa-akta (*II. eranskina*).
- c. Eskola-kontseiluaren bozketa-akta (*III. eranskina*).

Aurreko dokumentuez gain, Hedatze proiektuan aurretik parte hartu ez duten ikastetxeen kasuan, honako hauek aurkeztu beharko dira:

- d. Familiei egindako kontsultaren boto-zenbaketaren akta (*IV. eranskina*).
- e. Ikasleentzako kontsultaren boto-zenbaketaren akta (*V. eranskina*).

## 6. artikulua- Ikastetxearen proiektuaren egitura.

1.- Proiektuak koherentea izan beharko du ikastetxearen Hezkuntza Proiektuaren helburuekin, ikastetxearen erabaki eta proiektu handiak egituratzen, koherentziaz jokatzeko eta bideratzen dituen dokumentua baita. Onartuz gero, horien ondoriozko helburuak eta jarduera nagusiak ikastetxearen Urteko Planean sartu beharko dira.

2.- HEDATZE proiektuan parte hartzeko eskerak, I. eranskinaren eta (I)bis eranskinaren arabera beteko dena, honako idatz-zati hauek bildu behar ditu:

- a. Ikasleen irakastordutegia aldatzeko proposamenak. Proposamenak honako hauek bete eta zehaztu beharko ditu:
  - a.1. Asteko 30 saioak antolatzeko irakastordutegi berria. Irakastordutegiko aldaketak ez du murrizketarik ekarriko ikasturte osoaren irakas-denboraren kantitatean.
  - a.2. Ordutegi-proposamena, 6 ordukoa gutxienez astean eta 180 ordukoa gutxienez urtean (ez dira irakastorduak izango).
- b. Irakasleen dedikazio-orduak berrantolatzeko proposamenak. Proiektuak argi eta garbi zehaztu behar du zer proposamen egiten duen ikastetxeak irakasleen dedikazioaren berrantolatzeko osoa egin eta ikasleen ordutegian proposatzen diren aldaketak bideragarriak direla bermatzeko: irakastorduak, irakastorduetatik kanpoko presentzia-orduak, etab. Alde horretatik, irakastorduei dagozkien dedikazio-tarteak zehaztuko dira eta irakastorduetatik kanpoko saioen ordutegi-antolamendua adieraziko da.



Berrantolatze horrek ez ditu irakasleen lan-baldintzak urratuko. Horrela, ikasleentzat proposaturiko irakas-jardueraren eta irakasteko ez den jardueraren berrantolatzea bermatu eta gauzatzeko, irakasleek *eskolak ematea* edota *hezkuntza-indargarriak* diren orduetatik (18 orduko muga gainditu gabe), edota *astean jarduera osagarrietarako* 7 orduetatik gutxienez bat eskainiko dio astero HEDATZE proiektuaren barruan ikasleekin zuzenean jarduteari. Egoera hau irakasle bakoitzaren EEDn jasoko da.

Ikasleen irakastordutegi proposamenek ez dute murrizketarik eragingo irakasleen dedikazio-orduetan.

- c. Ikasleen eta familien parte-hartzea sustatzeko estrategiak. Irakasteko ez den eskola-orduetegiaren berrantolamendua eta irakastorduaren aldaketa bat lortzeko, ezinbestekoa da ikasleen eta familien gehiengo zabalaren adostasuna, Ebazpen honen 4. artikuluan xedatutakoaren arabera. Era berean, ezinbestekoa da ikasleak eta familiak inplikatzeko eskolaz kanpoko jardueren eskaintza erakargarria berrantolatzeko.

Dena den, helburua irakasteko ez diren jardueretan ikasleen parte-hartze albait handiena bultzatzea bada ere, aukerakoa izango da parte-hartze hori, eta familien esku geratuko da beren seme-alabek ikastetxearen jardueretan parte hartuko duten, edo denbora hori beste zeregin batzuei eskainiko dioten. Aukerakotasun hori ez zaie aplikatuko nahitaez parte hartu behar duten ikasleei, ebazpen honen 4.4 artikuluan ezarritakoaren arabera.

Eskola-komunitatearen parte-hartzea proiektuaren ardatza izan behar duela aintzat hartuta eta kontuan izanda ikasleen eta familien inplikazioa ezinbestekoa dela ikastetxearen antolamendua efizientea izan dadin, parte-hartze hori sustatzeko estrategiak zehaztu behar ditu proiektuak.

Proiektuaren bideragarritasuna bultzatze aldera, tokiko eta lurraldeko erakundeen, fundazioen, erakundeen eta bestelako eragileen laguntza eskatu eta kudeatuko du ikasleen guraso- elkarteak (IGE).

3.- Ikastetxea deialdi honetan hautatzen bada, HEDATZE proiektuaren alderdi hauek zehaztu beharko ditu 2024ko irailaren 30 baino lehen:

- a. Hedatze proiektuaren helburu orokorrak: deialdian ezarritako helburuetatik abiatuta, ikastetxeak bere testuingurura egokitu beharko ditu (errealitatea, behar espezifikoak, aukerak).
- b. 2024-2025 ikasturteko lehen hiruhilekorako proposatutako jardueren eskaintza, horietako bakoitzerako zehaztuta:
- Lortu nahi den helburua (helburu orokorreari lotuta, irakurketa estrategiari berariazko jarduerak jasota).
  - Egutegia eta ordutegia.
  - Jardueraren arduraduna; ikastetxeko irakasle bat edo beste hezkuntza-eragile batzuk izan daitezke (familiak, IGEak, ikasleak, ikasle ohiak, boluntarioak, begiraleak).
  - Zein ikasleri zuzenduta dagoen.
  - Ikastetxeko espazioak eta baliabideak erabiltzea.



Jardueren eskaintza horrek itxaropen handiak sortu behar ditu ikasle guztien hezkuntza-arrakastari dagokionez, eta ikasle bakoitzaren hezkuntza-mailari dagozkion gaitasunak garatu behar ditu.

Lehen hiruhilekoa amaitzean, plangintzan zehaztutako lorpen-adierazleen arabera egindako jarduerak ebaluatu ondoren, ikastetxeak bigarren hiruhilekorako jardueren eskaintza diseinatuko du. Bigarren hiruhilekoa amaitzean ere berdin jokatu da.

- c. Jarraipen- eta lorpen-adierazleak. Helburu orokor horien betetze-maila neurtzeko adierazleak zehaztuko dira, jardueretarako ezarritako jarraipen-adierazleetatik abiatuta
- d. Proiektuaren koordinazioa eta jarraipena. Deialdi honen 11. artikuluan jasotako Jarraipen eta Hobekuntza Batzordearen osaera eta funtzionamendua zehaztu beharko dira.

4.- Proiektua zehazteko, ikastetxeak hezkuntza-ikuskaritzaren eta Berritzegune Nagusiaren aholkularitza izango du, baita laguntza-materiala ere. Ildo horretan, Hedatze proiektu bakoitzaren plangintza, jarraipena eta ebaluazioa errazteko, Hezkuntza Sailak "Hezkuntza-aplikazioak" atarian horretarako diseinatutako aplikazioa erabili beharko du ikastetxeak.

## **7. artikulua- Zuzendaritza-taldearen lidergoa eta funtzioak.**

1.- Zuzendaritza-taldearen konpromisoa eta lidergoa ezinbestekoa da proiektuak arrakasta izateko, eta horrenbestez, honako funtzio espezifiko hauek bete beharko ditu:

- Sektore guztietako ordezkarien iritzi eta ekarpenak biltzea proiektua eskatu aurretik.
- Irakasleen parte-hartzea bultzatzea, proiektuaren proposamen berritzaileenak zehazteko.
- Proiektuaren informazio-prozesua kudeatzea, eskola-komunitatea osatzen duten sektore guztiekin izan beharreko elkarrizketa jarraitua bermatuta.
- Familien, irakasleen, ikasleen eta abarren parte-hartze demokratikoa bermatzea, proiektua onar dezaten. Komunitatearen hezkuntza-agente guztiek proiektuaren elaborazioan parte hartzeko formulak bilatuko dira.

2.- Ikastetxea proiektuan parte hartzeko aukeratzen bada, hauek egin behar ditu zuzendaritza-taldeak:

- Proiektuaren jarraipen etengabea egin behar du eta Jarraipen- eta hobekuntza-batzordearen (11. artikulua) burutza-lana egin behar du.
- Proiektuaren amaierako ebaluazio-prozesuan parte hartu behar du eta Ikuskaritzari lagundu behar dio lan horretan.
- Amaierako memoria bat egin behar du, ebazpen honetako 12. artikulua arautzen duen moduan.

**8. artikulua.- Hautaketa batzordea.**

1.- Hautaketa Batzorde bat eratu da eskaerak hautatzeko, horretarako propio sorturikoa, eta proiektuan parte hartzeko aukeraturiko ikastetxeen zerrenda proposatuko dio Hezkuntzako sailburuordeari. Honako hauek osatuko dute Batzordea:

- a) Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren zuzendaria edo hark eskuordetzen duen pertsona.
- b) Ikuskari Nagusia edo horrek eskuordetzen duen ikuskatzailea.
- c) Pedagogi Berrikuntzarako Lurralde Buruzetako arduradunak edo haien ordekoak.
- d) Ikaskuntza eta Hezkuntza Berrikuntzaren Zuzendaritzako Irakasleen Etengabeko Ikaskuntza eta Hobekuntza Zerbitzuko arduraduna, edo hark eskuordetzen duen pertsona, idazkari lanetan arituko dena.

**9. artikulua.- Hautaturiko ikastetxeen zerrenda.**

1.- Hautatua izateko, ikastetxeak aurkezturiko proiektuak ebazpen honen 4. artikuluan jasotako betekizunak bete beharko ditu, *VI. eranskinean* (parte hartzen duten ikastetxeen betebeharrak) laburbiltzen direnak.

2. Azken bi ikasturteetan Hedatze proiektuan parte hartu duten ikastetxeen kasuan, hautaketa hori hezkuntza-ikuskaritzak 2023-2024 ikasturteko proiektuaren ebaluazio positiboa egitearen baldintzapean egongo da.

**10. artikulua.- Hezkuntza Sailaren lankidetzak.**

1.- Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren zuzendaritzaren, Berritzegune Nagusiaren eta Hezkuntza Ikuskaritzaren aholkularitza eta laguntza teknikoa izango dute hautaturiko ikastetxeek proiektua garatzeko. Era berean, ikastetxeek elkarrekin lan egiteko aukera bultzatuko da.

**11.-Artikulua.- Jarraipen- eta hobekuntza-batzordea.**

Proiektuaren konplexutasuna eta garrantzia kontuan izanda, ikastetxeek Jarraipen eta Hobekuntza Batzorde bat sortuko dute. Ikastetxe bakoitzak batzorde horretako kideak eta horien funtzionamendua zehaztuko ditu. Nolanahi ere, irakasleek, ikasleek eta familiek ordezkaturik egon beharko dute eta zuzendaritza-taldeko kide bat izango da buru. Batzorde hori gutxienez hiru hilean behin bildu beharko da.

**12. artikulua.- Proiektuaren ebaluazioa.**

1.- HEDATZE proiektuaren ebaluazioa jarraia izango da. Horretarako, hiru hilabetero, egindako jardueren kopurua eta tipologiaen jarraipena egingo da, eta jarduera hauetan ikasleen eta irakasleen parte hartzearen jarraipena egingo da.





2.- Aukeratutako proiektu guztiak dagokion ikasturteko hirugarren hiruhilekoan ebaluatuko dira. Ebaluazio horrek zaindu behar du Hedatze benetan izan dadila bere izenak adierazten duena eta balio dezala bigarren hezkuntzako ikastetxeen kalitatean aurrera egiteko.

3. Ikastetxeak urteko memoria bat egingo du, dagokion ikasturteko maiatzaren 15 baino lehen, eta Hezkuntza Ikuskaritzaren esku jarriko du.

4.- Ikastetxearen urteko memoriak proiektuaren balorazioa jasoko du. Besteak beste, alderdi hauek jasoko dira:

- a. Proposatutako helburuen betetze-maila, ezarritako lorpen-adierazleen arabera.
- b. Egindako jardueren zerrenda eta tipologia, jarduera bakoitzean parte hartu duten ikasleen kopurua eta jarduera horiek garatzeaz arduratuko diren irakasleak edo beste hezkuntza-eragile batzuk identifikatzea.
- c. Proiektuaren alderdi teknikoak eta antolamendukoak ebaluatzea.
- d. Iradokizunak eta hobetzeko proposamenak, hala badagokio.

5.- Jarraipena eta ebaluazioa, parte hartzen duen ikastetxe bakoitzaren proiektuaren helburuen betetze-maila aztertuko duena, Hezkuntzako Ikuskaritzak egingo du. Horretarako, besteak beste, aurreko paragrafoan aipatutako urteko memoria hartuko du kontuan. Memoria hori aurkeztea ezinbestekoa izango da ebaluazio-prozesua gainditzeko.

6.- Era berean, ebaluazio-prozesu hori gainditzea ezinbesteko baldintza izango da ikastetxeari baimena eman diezaioten ondorengo ikastaldietan proiektuarekin jarraitzeko.

### 13. artikulua.- Datu pertsonalak

1.- Ebazpen honetako prozeduretan aurkeztutako eskabideetan eta dokumentazioan agertzen diren datu pertsonalak Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren alorrean eskumena duen zuzendaritzak tratatuko ditu, datuen tratamenduaren «arduradun» gisa. Datu pertsonalen tratamendu horren xedea deialdi hau kudeatzea eta ebatzea izango da; hots, interes publikoan eta parte-hartzeko eskaeran oinarritutako xedea.

2.- Interesdunek datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko eta transferitzeko eskubideak baliatu ahal izango dituzte, bai eta datuok tratatzeko mugak edo aurka egiteko eskubideak ere. Horretarako, idatzizko jakinarazpena bidali beharko dute Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren Zuzendaritzara (Donostia kalea 1, 01010 VITORIA-GASTEIZ).

3.- Deialdi honetan parte hartzen dutenek baimena ematen diote Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren Zuzendaritzari beste erakunde publiko batzuetan egiazta dezan aurkeztutako dokumentuak egiazkoak direla.

**AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA**

Ebazpen honek Hezkuntza Sailaren web-atarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

**AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA**

Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsioa aurkez dakioke Hezkuntzako sailburuari, hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, sinaduraren datan

Begoña Pedrosa Lobato  
Hezkuntzako Sailburuordea



## I ERANSKINA

HEDATZE PROIEKTUAREN ESKARIA: INPRIMAKI EREDUA<sup>1</sup>.

## 1.- ADMINISTRAZIO-DATUAK.

## 1.1.- Ikastetxearen identifikazio-datuak

Ikastetxearen izena			
Ikastetxearen kodea		Telefonoa	
Herria			
Posta elektronikoa			

## 1.2.- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eskola-unitateen banaketa, mailak eta ikasle-kopurua.

	1. DBH	2. DBH	3. DBH	4. DBH
Unitate kopurua				
Ikasleria				

DBHko ikasle kopurua, guztira:

## 1.3.- Ikastetxeko langileak:

## a.- Bigarren Hezkuntzako irakasleak (DBH eta, hala badagokio, Batxilergoa).

Irakasle kopurua: .....

## b.- Zuzendaritza taldea.

## 2. JANTOKI-ZERBITZUA ANTOLATZEKO PROPOSAMENA

## 3. GARRAIO-ZERBITZUA ANTOLATZEKO PROPOSAMENA

<sup>1</sup> Inprimaki hau "Herri-ikastetxeak/Deialdiak" Ataria baliatuz online beteko da.



#### 4. IRAKASLEEN DEDIKAZIO-ORDUAK BERRANTOLATZEKO PROPOSAMENAK.

##### Erantzukizunpeko adierazpena

Bigarren Hezkuntzan irakasten duten Departamendu guztiek eta irakasleen % 100ek proiektuan parte hartuko dute. Parte-hartze hori ikasleekiko zuzeneko elkarreraginari dagokio, ohiko eskola-jardunalditik kanpo ikasleari eskainitako ordutegian. Berrantolaketak ezin izango ditu irakasleen lan-baldintzak urratu. Horrela, ikasleentzat proposatutako irakastorduak eta eskolaz kanpokoak berrantolatzea bermatzeko eta ahalbidetzeko, Irakasle bakoitzak astean irakastordu eta/edo Hezkuntza-errefortzu gisa aurreikusitako orduetatik gutxienez ordubete emango du (ordu horiek ezin izango dira astean 18 orduetik gorakoak izan), edo astean jarduera osagarrietarako aurreikusitako 7 orduetako bat, HEDATZE proiektuari eskainitako ordutegian ikasleekin zuzenean elkar eragiteko. Egoera hori Irakasle bakoitzaren DAEn jasoko da. Irakasleen eskola-ordutegiaren proposamenek ez dute irakasleen dedikazio-orduak murriztea ekarriko.

Gure konpromisoa da 2024-2025 ikasturterako gure urteko prestakuntza-planean sartzea gure irakasle guztiek Hezkuntza Sailak irakurtzeko gaitasuna garatzeari buruz antolatutako prestakuntzan parte hartzea, ikastetxeko irakurketa-estrategia planifikatze eta inplementatze aldera.

#### 5. IKASLEEN ETA FAMILIEN PARTE-HARTZEA SUSTATZEKO ESTRATEGIAK

Ikasleek aukerakoa izango dute eskolaz kanpoko jardueretan parte hartzea, eta familien esku geratuko da haien seme-alabek ikastetxeko jardueretan parte hartuko duten, edo denbora hori beste zeregin batzuetan emango duten erabakitzea. Hala ere, ikasleek eskolaz kanpoko jardueretan ahalik eta parte-hartze handiena izan dezaten bultzatzeko, estrategia hauek ezarriko dira:

Parte-hartzeari dagokion hautazkotasuna ez da aplikatuko aurreko ikasturteetan gainditu gabeko irakasgaiak dituzten ikasleen kasuan, ez eta ikasturtean zehar egindako ebaluazioetan ikasgairen edo eremuren baten gaitasun-ebaluazioa gainditzen ez dutenen kasuan ere.



(I)bis ERANSKINA  
ORDUTEGI PROPOSAMENA

1.- IKASLEEN ESKOLA-ORDUTEGIA ALDATZEKO PROPOSAMENA

A) Astean 30 saio antolatzeko eskola-ordu berriak

	ASTELEHENA	ASTEARTEA	ASTEAZKENA	OSTEGUNA	OSTIRALA
___(e) tatik ___(e)tara					
___(e) tatik ___(e)tara					
___(e) tatik ___(e)tara					
___(e) tatik ___(e)tara					
___(e) tatik ___(e)tara					
___(e) tatik ___(e)tara					
___(e) tatik ___(e)tara					

B) Eskolaz kanpoko ordutegiaren proposamena (gutxienez astean 6 ordu eta urtean 180 ordu)

	ASTELEHENA	ASTEARTEA	ASTEAZKENA	OSTEGUNA	OSTIRALA
___(e) tatik ___(e)tara					
___(e) tatik ___(e)tara					



II. ERANSKINA  
KLAUSTROAREN BOZKETA-AKTAREN EREDUA

Ikastetxea: .....

Kodea: ..... Herria:.....

..... JN./AND

..... Ikastetxeko idazkaria

ZIURTATZEN DUT

Ikastetxe publikoen barne-antolaketaren berrikuntza-proiektua (HEDATZE) aurkeztu eta eztabaidatu ondoren, .....(e)ko.....aren (ko)... .....(e)an ezohiko klaustroaren bilkuran, BAI/EZ (ezabatu ez dagokiona) Ikastetxe publikoen barne-antolaketaren berrikuntza-proiektua (HEDATZE) onartu dela, 2/3 baino portzentaje handiagoarekin.

Bozketaren emaitza honako hau izan da:

Klaustroko kideen kopurua, guztira: ...

Baiezko botoen kopurua: ...

Ezezko botoen kopurua: ...

Baiezko botoen ehunekoa errolda-kopuru osoarekiko: ...

n, ko ren (e)an.

Ikastetxeko zuzendaria

Ikastetxeko idazkaria

(Ikastetxeko zigilua)

Izp.:

Izp.:



IKASTETXE PUBLIKOEN BARNE-ANTOLAKETARES BERRIKUNTZA PROIEKTUA ONARTZEKO JARRAIBIDEAK (HEDATZE)

1. Ikastetxeko zuzendaritzak ezohiko klaustro bat deituko du, gai-zerrendan gai bakarra duena: ikastetxe publikoen barne-antolamenduaren berrikuntza-proiektua (HEDATZE) aurkeztea, eztabaidatzea eta onartzea.
2. Klaustroko kide guztiek, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako etapan irakasten badute, eta, hala badagokio, Batxilergoan, ikastetxeak proiektu horretan parte hartzearen alde edo aurka bozkatu beharko dute (ezin izango da bozketan abstenitu).
3. Bozketa egin aurretik ikastetxeko zuzendariak proiektua klaustroari aurkeztuko dio. Horretarako, zentroen eskura jarriko den material osagarria erabili ahal izango du, eta zentroko erreferentziazko ikuskariaren laguntza jaso ahalko du.



III. ERANSKINA  
ESKOLA-KONTSEILUA. BOZKETAREN AKTA-EREDUA

Ikastetxea:.....

Kodea: ..... Herria:.....

.....Jaun/Andreak

.....ikastetxearen idazkariak

ZIURTATZEN DUT:

Klaustroan onartu ondoren, Ikastetxe publikoen barne-antolaketaren berrikuntza-proiektua (HEDATZE) aurkeztu eta eztabaidatu dela, \_\_\_\_ko \_\_\_\_\_ ren \_\_\_\_an eskola-kontseiluaren ezohiko bileran, eta gehiengo osoz erabaki dela

BAI/EZ (ezabatu ez dagokiona)\_\_\_\_\_ikastetxeak ikastetxe publikoen barne-antolamenduaren berrikuntza-proiektuan (HEDATZE) parte hartzea. Halaber inplikaturako familia eta ikasleekin informazio- eta kontsulta-prozesua hastea erabaki da.

BOZKETAREN EMAITZA HONAKO HAU IZAN DA:

Botoa emateko eskubidea duten eskola-kontseiluko kideen guztizko kopurua:

Baiezko botoen kopurua:

Ezezko botoen kopurua:

Boto zurien kopurua:

Baliogabeko botoen kopurua:

Baiezko botoen ehunekoa, boto-eskubidea duten kideen guztizko kopuruarekiko:

Lekua eta data: .....

Ikastetxeko zuzendaria

Ikastetxeko idazkaria

(Ikastetxeko zigilua)

Izp:

Izp.:





ESKOLA-KONTSEILUAN IKASTETXE PUBLIKOEN BARNE-ANTOLAKETAREN BERRIKUNTZA-PROIEKTUA ONARTZEKO JARRAIBIDEAK (HEDATZE)

1. Ikastetxeko zuzendaritzak eskola-kontseiluaren ezohiko bilkura baterako deialdia egingo du, gai-zerrendan gai bakarra izango duena: ikastetxe publikoen barne-antolaketaren berrikuntza-proiektua (HEDATZE) aurkeztea, eztabaidatzea eta onartzea.
2. Bozketa egin aurretik, ikastetxeko zuzendariak proiektua aurkeztuko dio eskola-kontseiluari. Horretarako, zentroen eskura jarriko den material osagarria erabili ahal izango du, eta zentroko erreferentziazko ikuskariaren laguntza jaso ahalko du.
3. Gehiengo absolutua boto-eskubidea duten kideen legezko kopuruaren erdiak baino gehiagok osatzen du. Adibidez, eskola-kontseiluaren kasuan, 30 kideez osaturik balego, proiektuaren aldeko 16 boto izan beharkolirateke, nahiz eta bilkuran kide guztiak agertu ez.



IV. ERANSKINA  
FAMILIEI EGINDAKO KONTSULTAREN BOTO-ZENBAKETAREN AKTAREN EREDUA

Ikastetxea: .....

Kodea: .....

Herria:.....

.....Jaun/andreak

..... Ikastetxeko idazkariak

ZIURTATZEN DUT:

\_\_\_\_\_ko \_\_\_\_\_ren \_\_\_\_\_n, Hezkuntza komunitateari egindako kontsultan,

ONARTU DELA / EZ DELA ONARTU (ezabatu ez dagokiona) ikastetxe publikoen barne-antolaketaren berrikuntza-proiektua (HEDATZE)

HAUTESLE-ERROLDA:

Botoa emateko eskubidea duten pertsonen kopurua:....  
Erroldaren % 50eko parte-hartzea lortzeko behar den boto-kopurua:.....

BOZKETAREN EMAITZA:

Emandako botoak, guztira:..... eta partaidetza-ehunekoa:....

Baiezko botoen kopurua:....

Ezezko botoen kopurua:....

Boto zurien kopurua:...

Baliogabeko botoen kopurua:...

Emandako boto guztien gaineko baiezko botoen ehunekoa:....

Lekua eta data:

Ikastetxeko zuzendaria

Ikastetxeko idazkaria

(Ikastetxeko zigilua)

Izp:

Izp:



HEZKUNTZA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

Gurasoen Elkarteko Ordezkaría

Eskola-kontseiluko Ordezkaría

Izp:

Izp:



## FAMILIEK IKASTETXE PUBLIKOEN BARNE-ANTOLAKETA (HEDATZE) BERRITZEKO PROIEKTUA KONSULTATU ETA ONARTZEKO JARRAIBIDEAK

### Familiei informazioa emateko prozesua

1. Eskola-kontseiluak onartzen duen egunetik aurrera, zuzendaritza-taldeak, familien ordezkariekin eta ikastetxean dauden Ikasleen Gurasoen Elkarteekin koordinatuta, informazio- eta eztabaida-prozedura abiaraziko die familiei, eta, horretarako, ikastetxeak beharrezko baliabideak emango dizkie familia guztiei informazioa emateko eta hezkuntza-komunitate osoak proiektua ezagutu eta baloratzeko.
2. Informazio-prozesuan, ikastetxe publikoetako barne-antolamenduaren berrikuntza-proiektu berria (HEDATZE) onartzeko jarraitu beharreko prozeduraren berri emango zaie familiei, ikastetxean ohikoak diren komunikabideen bidez, eta bozketa zein egun eta ordutegitan egingo den jakinaraziko zaie, bai eta garatuko diren informazio-ekintza guztien berri ere. Informazio hori ikastetxeko iragarki-taulan ere argitaratuko da, guztiek jakin dezaten. Ikastetxeak bere espazioak eta instalazioak emango dizkie gurasoei, familien ordezkariari eta IGEEi, eskatzen dituzten bilera guztiak egin ditzaten HEDATZE proiektua azaldu edo eztabaidatzeko.

### Familiek botoa emateko errolda eta egutegia.

1. Ikastetxeko zuzendaritza-taldeak ziurtatu eta iragarriko du familiek proiektuari buruzko informazioa emateko eta proiektua onartzeko prozesua, eskura dituzten baliabide guztiekin, eta errolda egiteko ardura hartuko du.
2. Zuzendaritza-taldeak ezarriko du bozketa-data, eta boto-ordutegi adostua ezarriko du, erroldako kide guztiek botoa emateko aukera izan dezaten, eta, behar izanez gero, ikastetxearen ordutegia zabalduko du.

### Familien bozka

1. Bozketak aurreikusitako egunetan egiteko, bozketa-mahai bat eratuko da. Honako hauek osatuko dute mahai hori: ikastetxeko zuzendariak (bera izango da burua), Gurasoen Elkarteetako ordezkari batek eta eskola-kontseiluan ordezkari diren bi gurasok (bozketa bidez hautatuko dira), eta horietako bat mahaiko idazkaria izango da. Kide guztien ordezkariak izendatu ahal izango dira, zuzendaritza-taldeko gutxienez kide bat eta bokal bat bertan egongo direla bermatzeko.
2. Botoa zuzena eta sekretua izango da, eta galdera zuzena eta ñabardurarik gabea, jarraibide hauetan aurreikusitako ereduaren arabera.
3. Bozketak errazteko, hautestontzi bat jarriko da ikastetxeko idazkaritzan, zuzendaritza-taldearen zaintzapean, aurrez aurreko bozketaren aurreko egunetan. Bozketa horrek honako hau errespetatu beharko du:
  - a) Boto-emaeleak gutun-azala uzten denean, identifikatu egingo da, eta erroldan idatziko da.



- b) Boto horiek, bozketa presentziala amaitzean sartuko dira, adierazitako egunean eta zenbaketa orokorra hasi aurretik.
4. Ikastetxera joatea ezinezkoa bada, boto-emaileak baimena eman diezaioke adin nagusiko beste pertsona bati ikastetxera joan dadin botoa ematera, honako prozedura honen arabera:
- Baimendutako pertsonak baimen sinatua aurkeztu beharko du (eredua erantsita doa jarraibide hauen amaieran), boto-emailearen identifikazio pertsonaleko agiriaren kopiarekin batera.
  - Baimendutako pertsona identifikatu eta boto eskuordetua emango du.
5. Eskola-kontseiluak proiektua onartu eta hurrengo egunetik aurrera, ikastetxeko idazkaritzak boto-txartelak emango dizkie hala eskatzen duten hautesleei.

Familiek proiektua onartzea:

1. Proiektua onartzeko, gutxienez errodaren % 50eko partaidetza beharko da, eta emandako botoen 2/3ko gehiengo kualifikatuak onartu beharko du.
2. Bozketaren boto-zenbaketaren emaitzaren akta egingo da eranskin honetan jasotako ereduaren arabera, eta hori ere ikastetxeko iragarki-taulan argitaratuko da.



## EREDUA

## FAMILIEI EGINDAKO KONTSULTAREN ORRIA

Ados al zaude gure ikastetxean aurkeztutako HEDATZE ZENTRO PUBLIKOEN BARNEKO ANTOLAKUNTZA BERRIKUNTZEKO PROIEKTUAREKIN?

Bai

Ez

Markatu argi eta garbi aukeratutakoa

## BAIMEN-EREDUA:

\_\_\_\_\_ jaunak/andreak, \_\_\_\_\_ zenbakidun identifikazio-agiriarekin,  
\_\_\_\_\_ jaunari/andreari \_\_\_\_\_ zenbakidun identifikazio-agiriarekin baimena  
ematen dio ikastetxeko idazkaritzan botoa aldez aurretik emateko, (HEDATZE) ZENTRO PUBLIKOEN BARNE  
ANTOLAKUNTZA BERRIKUNTZAKO PROIEKTUKO familiei egindako kontsultari buruz.

\_\_\_\_\_n \_\_\_\_\_ko \_\_\_\_\_ren \_\_\_\_\_n

Izp:



V. ERANSKINA  
IKASLEENTZAKO KONTSULTAREN BOTO-ZENBAKETAREN AKTAREN EREDUA

Ikastetxea: .....

Kodea: ..... Herria.....

.....Jaun/Andreak

..... ikastetxeko idazkariak

ZIURTATZEN DUT

\_\_\_\_\_ko \_\_\_\_\_ren\_\_\_\_n, DBHko 3. eta 4. mailako ikasleei egindako kontsultan, ONARTU DELA/EZ DELA ONARTU (ezabatu ez dagokiona) ikastetxe publikoen barne-antolaketaren berrikuntza-proiektua (HEDATZE).

HAUTESLE-ERROLDA

Botoa emateko eskubidea duten ikasleen kopurua:

Erroldaren % 50eko parte-hartzea lortzeko behar den boto-kopurua:

BOZKETAREN EMAITZA

Emandako botoak, guztira: .... eta partaidetza-ehunekoa:....

Baiezko botoen kopurua:....

Ezezko botoen kopurua:.....

Boto zurien kopurua:....

Baliogabeko botoen kopurua:....

Emandako boto guztien gaineko baiezko botoen ehunekoa:.....

Lekua eta data:

Ikastetxeko zuzendaria

Ikastetxeko idazkaria

(Ikastetxeko zigilua)



IKASLEEK IKASTETXE PUBLIKOEN BARNE-ANTOLAKETA (HEDATZE) BERRITZEKO PROIEKTUA KONSULTATU ETA ONARTZEKO JARRAIBIDEAK

Ikasleei informazioa emateko prozesua.

1. Eskola-kontseiluak onartzen duen egunetik aurrera, zuzendaritza-taldeak, DBHko 3. eta 4. Mailetako tutoreekin koordinatuta, ikasleei informazioa emateko eta eztabaidatzeko prozedura hasiko du.
2. Informazio-prozesuan, ikastetxe publikoen barne-antolamenduaren berrikuntza-proiektuaren (HEDATZE) ezaugarriak jakinaraziko zaizkie ikasleei tutoretza-saio batean, eta, ondoren, proiektua bozkatu egingo da.
3. Botoa zuzena eta sekretua izango da, eta galdera zuzena eta ñabardurarik gabea, jarraibide hauetan aurreikusitako ereduaren arabera.

Ikasleek proiektua onartzea.

1. Proiektua onartzeko, gutxienez eroldaren % 50eko partaidetza beharko da, eta emandako botoen 2/3kogehiengo kualifikatuak onartu beharko du.
2. Bozketaren boto-zenbaketaren emaitzaren akta egingo da eranskin honetan jasotako ereduaren arabera, eta hori ere ikastetxeko iragarki-taulan argitaratuko da.





EREDUA

IKASLEENTZAKO KONTSULTA-ORRIA

Ados al zaude gure ikastetxean aurkeztutako HEDATZE ZENTRO PUBLIKOEN BARNEKO ANTOLAKUNTZA BERRIKUNTZEKO PROIEKTUAREKIN?

BAI

EZ

Markatu argi eta garbi aukeratutakoa



## VI ERANSKINA

## PARTE HARTZEN DUTEN IKASTETXEEN BETEKIZUNAK

PROIEKTUA ONARTZEKO BALDINTZAK	EBIDENTZIAK ETA INFORMAZIO ITURRIAK
1.- Ikastetxe eskatzaileak zuzendaritza egonkorra du 2024-2025 ikasturterako.	Hezkuntzako ikuskaritzak baldintza hori berretsiko du.
2.- Irakasleen Klaustroak onartu du proiektua, emandako botoen 2/3ko gehiengo kualifikatuarekin eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta, hala badagokio, Batxilergoko etapetan irakasten duten irakasleen eroldaren % 100eko partaidetzarekin.	Klaustroaren bozketa-akta (II. eranskina)
3.- Eskola-kontseiluak onartu du proiektua,gehiengo osoz.	Eskola-kontseiluaren bozketa-akta (III.eranskina)
4.- Lehen aldiz parte hartu nahi duten ikastetxeen kasuan: Proiektua DBHko ikasleen familiekin kontsultatu da, eta emandako botoen 2/3ko gehiengo kualifikatuarekin eta eroldaren % 50eko gutxieneko partaidetzarekin onartu da.	Familiei egindako kontsultaren boto-zenbaketaren akta (IV. eranskina)
5.- Lehen aldiz parte hartu nahi duten ikastetxeen kasuan: Proiektua DBHko 3. eta 4. mailako ikasleekin kontsultatu da, eta emandako botoen 2/3ko gehiengo kualifikatuarekin eta eroldaren % 50eko gutxieneko partaidetzarekin onartu da.	Ikasleentzako kontsultaren boto-zenbaketaren akta (V. eranskina)
6.- Bigarren Hezkuntzan irakasten duten Departamentu guztiek eta irakasleen % 100ek proiektuan parte hartuko dute. Parte-hartze hori ikasleekiko zuzeneko elkarreraginari dagokio, ohiko eskola-jardunalditik kanpo ikasleari eskainitako ordutegian.  Ikasleentzat proposatutako irakastorduak eta eskolaz kanpokoak berrantolatzea bermatzeko eta ahalbidetzeko, irakasle bakoitzak irakastordu eta/edo hezkuntza-errefortzu gisa aurreikusitako orduetatik gutxienez ordubete emango du astean (ordu horiek ezin izango dira astean 18 ordutik gorakoak izan) edo jarduera osagarrietarako aurreikusitako asteko 7 orduetatik ordubete, HEDATZE proiektuari eskainitako ordutegian ikasleekin zuzenean elkarreragiteko. Egoera hori irakasle bakoitzaren DAEn jasoko da.	I. eranskineko 4. puntuaren erantzukizunpeko adierazpena.



<p>7.- Proiektuan parte hartzeak ez dakar inola ere jantoki-zerbitzua desagertzea (zerbitzu hori eskaintzen ari diren ikastetxeen kasuan). Eskola-garraioko zerbitzuari dagokionez, zerbitzu hori eskaintzen bada, aurkeztutako proposamenak zerbitzu horrekiko bateragarritasuna jasotzen du.</p>	<p>HEDATZE proiektuaren eskaera. (I. eranskina, 2. eta 3. puntuak)</p>
<p>8. – Proiektuak ikasleen eskola-ordutegia aldatzeko proposamena zehazten du eta honako baldintza hauek betetzen ditu:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>a) Astean 30 saio antolatzeko eskola-ordutegi berriak ez du ikasturte osoko eskola-denbora murrizten.</li> <li>b) Eskolaz kanpoko ordutegiaren proposamena astean 6 ordukoa da gutxienez, eta 180 ordukoa urtean.</li> </ul>	<p>(I) bis eranskina: ordutegi-proposamena, 1 puntua.</p>
<p>9. Ikasleen eta familien parte-hartzea sustatzeko estrategiak.</p> <p>Ikasleek aukerakoa izango dute eskolaz kanpoko jardueretan parte hartzea, eta familien esku geratuko da haien seme-alabek ikastetxeko jardueretan parte hartuko duten, edo denbora hori beste zeregin batzuetan emango duten. Hala ere, proiektuan zehazten da zer estrategia ezarriko diren ikasleek ahalik eta parte-hartze handiena izan dezaten eskolaz kanpoko jardueretan.</p> <p>Parte-hartzeari dagokion hautazkotasuna ez da aplikatuko aurreko ikasturteetan gainditu gabeko irakasgaiak dituzten ikasleen kasuan, ez eta ikasturtean zehar egindako ebaluazioetan ikasgairen edo eremuren baten gaitasun-ebaluazioa gainditzen ez dutenen kasuan ere; kasu horretan, parte hartzea nahitaezkoa izango da.</p>	<p>HEDATZE proiektuaren eskaera. I. eranskina, 5. puntua.</p>